

Zuretzat pentsatua

Kontsultatu zure informazio pertsonalizatua, jaso txostenak eta izapidetu eguneko 24 orduetan. Sartu nahi duzunean eta edozein gailutatik.

Zuk nahi duzun bezala: paperik gabe, itxaronaldirik gabe, arin eta erraz.

Sartu zuzenean
portal.seg-social.gob.es
helbidera.
Edo kode honen bidez:

Halaber, EGOITZA elektronikotik, webgunetik edo Gizarte Segurantzaren aplikaziotik ere sar zaitezke:

Laguntza behar baduzu:
Lagunduko dizugu

Kontsulta ezazu Gizarte Segurantzaren webgunean ISSA laguntzaile birtuala edo harremanetan jar zaitez gurekin astelehenetik ostiralera,

901 50 20 50
91 541 02 91

Jarrai iezaguzu Twitter-en @info_TGSS

GOBIERNO DE ESPAÑA
MINISTERIO DE INCLUSIÓN, SEGURIDAD SOCIAL Y MIGRACIONES
SECRETARÍA DE ESTADO DE LA SEGURIDAD SOCIAL Y PENSIONES
TESORERÍA GENERAL DE LA SEGURIDAD SOCIAL

NIPO: 124-22-013-6

Importass, Gizarte Segurantzaren Diruzaintzaren ataria

Zure informazio eguneratua eta berehalakoa

Sartu zure eremu pertsonalean eta kontsultatu zure egungo egoera. Deskargatu zure lan-bizitzari eta kotizazio-oinarriei buruzko txostenak modu seguruan, errazean eta behar duzunean.

TESORERÍA GENERAL
DE LA SEGURIDAD SOCIAL

Nola eskuratu zure informazioa

Sar zaitez Importass-en, Diruzaintzaren atarian, portal.seg-social.gob.es helbidetik edo kode honen bidez:

Egoitza Elektronikotik, webgunetik edo Gizarte Segurantzako app-tik ere sar zaitezke:

IMPORTASS
PORTAL DE LA TESORERÍA

Importass-en zure lan-bizitza, kotizazio-oinarriak eta bestelako txostenak kontsultatu eta deskarga ditzakezu, izapideak egin autonomoa bazara edo etxeko langile bat baduzu, zorrak ezagutu eta ordaindu edo zure datu pertsonalak kontsultatu eta aldatu.

Identifika zaitez zure eremu pertsonalean **Cl@ve, ziurtagiri elektroniko edo SMS bidez**. Identifikatzeko bitarteko horiek ez badituzu, eska ditzakezu edo zure telefono mugikorraren berri eman dezakezu, **eskaera bat bidali zerbitzuaren bidez**.

Gainera, zure eskaeraren egoera kontsultatu edo osatu ahal izango duzu informazio gehigarria gehitu behar baduzu.

Lan-bizitza eta kotizazio-oinarriak

Orain, zure eremu pertsonalean sartuta, online kontsulta ditzakezu zure **lan-bizitzari eta zure kotizazio-oinarriei** buruzko xehetasunak.

Zure lan-bizitza
Gizarte Segurantzan eman dituzun alta eta baja aldiak, lan egin duzun enpresak, autonomo gisa egin duzun jarduera eta altan eman dituzun egunen kopurua ikusiko dituzu.

Zure kotizazio-oinarriak
Kontsultatu zure prestazioetarako kontuan hartuko diren kotizazio-oinarrien zenbatekoa.

Emaitzak filtratu ditzakezu, eta edozein unetan deskargatu txosten osoa edo behar duzun informaziora egokitutakoa. Gainera, akatsak hautematen badituzu, eskatu datuak eransteko edo zuzentzeko.

Identifikazio digitalik ez baduzu, txosten hauek zure etxera bidaltzeko eska dezakezu. Ziurtatu zure helbidea eguneratuta dagoela Gizarte Segurantzaren Diruzaintzan.

Zure egungo egoera Gizarte Segurantzan

Besteren konturako langilea bazara, zure enpresarekiko harremanaren datuen xehetasunak ikusiko dituzu: lanaldia, kontratu mota, kotizazio-taldea, hitzarmen kolektiboa eta zure aseguru-erakundea. Gainera, hilero Gizarte Segurantzari ordaintzen diozun kuotari eta enpresak zugatik kotizatzen duen zenbatekoari buruzko informazioa daukazu.

Norberaren kontura lan egiten baduzu, zure altarekin, jarduerarekin, ordaintzen duzun kuotarekin, aseguru-erakundearekin eta estaldurekin lotutako lan autonomoari buruzko zure datuen xehetasunak ikus ditzakezu.

Zure abisuak eta komunikazioak

Zure enpresak, arrazoiren batengatik, Gizarte Segurantzan duzun alta baliogabetzen badu, abisatuko dizugu. Era berean, jakinarazten dizugu zorrik baduzu egunean jartzeko.